

PROPOSAMENAK

XIRIMIRI

0-6 URTE

Zorigaitz sinple batetik sortzen da elkarrengandik ikasteko eta elkar aberasteko aukera euriak bustitzen duen hegazti familia baten etxean. Sinpletasunetik abiatuta, «Xirimiri» album ilustratuak istorio zirkular bat kontatuko du, gizarte indibidualista honen nolabaiteko metafora bat sortuz



BASAJAUN ETA MUNDUKO BESTE ILETSU BATZUK

6-8 URTE

Liburu honek mundu honetan bidelagun ditugun izaki fantastiko horiek ezagutzera gonbidatzen gaitu, haurren begiradatik eta haurren ilusioarekin. Ezberdinarekiko errespetuaren alde egiten dugunean konturatzen gara geure kondairak eta kultura maiz uste duguna baino askoz unibertsalagoak direla.



BIGA 3 - ERREKREAZIOAK, KLIK ETA EKIN!

6-8 URTE

Eskola berrira ezin hobeto egokitu eta bere ahalmenei buruz balio handiko irakaspenak atera ondoren, zer eskainiko digu Bigak hirugarren ale honetan? Abenturak, barreak eta asmo on ugari, nahiz eta, batzuetan, asmo horiek hondamena ekarri.



IZARRAK UKITU GENITUEN

12-16 URTE

Hamalau historia hauen protagonistek, berain hautu ausart eta borrokarako gaitasun izugarriarekin erakusten digute kirolak mundua alda dezakeela giza balio garaienen bozeramaile bihurtzen denean.



YO, VIEJA

HELDUAK

Freixasek testu hau bizitzaren une honetan mingostu edo erraztu diezaguketen gauza txikien aukera bati buruzko hausnarketa eta dibertimendua izatea nahi du. Gure ustez hain normalak diren eta garrantzitsutzat jotzen ez ditugun eguneroko bizitzako egoerak argitzeko foku moduko bat da, eta, hala ere, adinekoenganako diskriminazioaren eta gizarte-gaitzespenaren muina dira, adinekoak izateagatik soilik.



MANDAMENTU HIPERMODERNOAK

HELDUAK

Gure aroa bereizten duten ezaugarriak hauteman nahi ditu Iñigo Martinezek, eta, horretarako, inkontzienteki geureganatu ditugun aginduak bilatu eta definitzen ditu: bidaia ezazu, ez egon triste, izan zu zeu, zaindu zaitez, ez hartu maitasun-konpromisorik, izan zoriontsu, bilatu berriena.. Horrela 19 mandamentuko zerrenda osatu arte

